

Mikel Hiribarren Itsasuko auzapezaren hitza

Egun on eta ongi etorri Itsasuko herrirat.
Erran dautate “hik has” eta nago zergatik “nik has”?
Ikasi, ez dut oraindik ikasi nola behar den hasi!
Bada zenbait molde hasteko
Egun on lehenik naski. Bainan hori ez da aski.
Itsasun zaudete, hori ez da itsusi.
Lapurdin kokatzen gira bainan Nafarro behearekoa dugu hizkera.
Mintzatzen ginuen lehen denek euskara
Mintzo ginen lehen denak euskaraz.
Bestetan bezala hiztun bakarrak agortu dira.
Dakitenak asko dira,
Jakini erabiltzen dutenak horro dira.
Erabiltzen ez dutenak dakitelarik ausartzen ez baitira
Ikasten dabiltzanek merezimendu guzia dute.
Jakin eta ere ikasi daiteke
Erabiltzen duenak ere badu zer ikas
Askotan harek ere ez dakiela nundik has.
Gure herri hunek badu zerbait aberats
Hiru eskola dire denak erdi nahas mahas.
Euskaraz haur gutiz gehienek egiten dituzte zenbait urrats
Urriago batzuk nekeago bestek
Hiru eskolak dauzkagu
jantegi bakarra.
Gosez dabilta gure haurrak nahitaez
jaki gosez gure haurrak eta jakitate gosez.
Eskaini behar diegu jakitate atsegina
Erakutsi behar diegu hizkuntza hau nolako hazkurri,
hizkuntza hau zoin jostakina.
Ikasiko dute nola hitzak eta aditzak eta neurtitzak eta atsotitzak
kakolak bezala kokatzen direla kakotxek gakoturik.
Ez nenkien nundik has
so egin nuen zer zen Ikas.
Ibilbide luzea du arras
izen ospetsu zerrenda karratxo
Lafon, Lafitte, Haritxelar, Goihenetxe, Baxok
Emazteak bakanago lehen ageriago gero
Malharin, Minaberri, Jauregiberri lehenago
Agnès eta Maite hurbilago.
Sanoki gela huni begiratzuz
bazaudete ezagunak beste asko.
Ikas behar dugu goretsi
Itzaleko lan baliosa
Bakarlan eta elkarlan baitezpadakoa
Ikasiz, erakutsiz, irakatsiz
Eramanen dugu euskara plazarat
Jakitetik mintzatzerat.
Ez nenkien nola has, banaki nola utz.
Ofizio berria dut: Itsasuko herri hunen abots eta arnas
Gaztetan eta elkarlanean ipuin sakon bat euskaratu izan dut
Ganixen ahuntza izenburu ezarri ginion.
Hitzen soka luze huntarik aska nazazue
Gora zuek, Ikas
Gora biharko Euskal Herria euskaraz